



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 17a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-23/MOC-00002. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten. Navarra Suma, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).

—10-23/MOC-00003. Mozioa. Horren bidez, botere-banaketa oinarritzko printzipio demokratiko gisa berresten da, eta arbuiatu egiten dira Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (7. or.).

—10-23/MOC-00004. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Berdintasun Ministerioari exiji diezaion berehala berrikus dezala irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (8. or.).

—10-23/MOC-00005. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (9. or.).

—10-22/MOC-00107. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izapide egokiak egin ditzan vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezaten. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, honao erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2023ko urtarrilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru lege proposamena,
Nafarroako Abereen Osasunari
buruzko azaroaren 16ko 11/2000
Foru Legea aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Abereen gaixotasun kutsagarriek ondorio laztzak izan ditzakete abereentzat eta abeltzainen-tzat, baita ekonomian ere. Era berean, osasun publikoari eta elikagaien segurtasunari ere eragin diezaiekete. Europar Batasunak, 2007az geroztik, erabaki zuen estrategia berri batekin jokatzeko

abereen osasunaren arloan, eta arauen garapenerako oinarritzat hartu zuen “Aurre hartzea, sendatzea baino hobea” dioen printzipioa. 2016/429 Erregelamendua, “abereen osasunari buruzko Europako legea” delakoak, norabide horretan lanean segitzeko beharra indartzen du.

Prebentzioari heltzeko garaian, abeltegien kokapena eta diseinua izaten da baldintza nagusietako bat. Abeltegia kokatuta dagoen eremuko abere-dentsitateak baldintzatzen du eritasun kutsakorak izateko arriskua. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da ustiatzearen gehieneko neurriak eta abeltegien arteko distantzia arautzea, eta, horrela, abere-dentsitatea mugatzea. Jarduketa horrek apaldu egingen du eritasunak zabaltzeko arriskua, erraztu egingen baitu eritasun fokuren bat detektatzen denean hura kontrolatu eta desagerarazteko lana, eta, beraz, haren ondorioak gutxituko baititu.

Abereen Osasunari buruzko egungo Foru Legeak 28. eta 29. artikuluetan (“Distantziak” eta “Abere-dentsitatea”) aipatzen ditu elementu horiek. Arau honek artikuluko horien testua aldatzen du, eta abeltegiaren gehieneko neurriak ezartzen dituen eranskin bat gehitzen du.

Horrez gain, 39. artikulua aldatzen du, abeltegiari ematen ahal zaion gehieneko kalte-ordainaren zenbatekoa mugatzeko, ustiatze handiek osasun arriskuen aurrean prebentzio neurriak hartzea eta erantzunkidetasunez jokatzeko sustatzeko helburuarekin.

Bestalde, kontuan hartu behar da abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren bidez behitegiak arautzeko oinarriko xedapenak ezarri direla.

Arau horri jarraikiz, behitegiaren ekoizpen-ahalmena 850 AzLUtan finkatuta gelditzen da. Gainera, aurreikusten da errege-dekretua indarrean jarri baino lehen abian zeuden eta 1.2 artikuluan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena gainditzen zuten ustiatzearen ahalmen horri eusten ahalko

diotela, baina ezin izanen dutela handiagotu, inola ere.

Aipatutako errege-dekretuaren lehen xedapen iragankorrek adierazten duenez, izapidetze-fasean dauden ustiategiaren baimenari buruzko espedienteak, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, baina ekoizpen-prozesuarekin lotura zuzena duten instalazioak eraikitzen hasteko egin beharreko izapide guztiak beteta bazituzten 2022ko apirilaren 6a baino lehen –data horretan bukatu baitzen entzunaldi publikoko izapidea–, izapide horiek bete zirenean indarrean zegoen araudiaren arabera ebartziko dira.

Xedapen horrek erreferentziazko data bat finkatzen du alde batetik, eta, bestetik, ezartzen du zer eskakizun bete behar dituzten data hori baino lehenago aurkeztutako eskabideek errege-dekretuko xedapenak ez dakizkien aplikatzekoak izan. Hori horrela, foru-arauan zenbait alderdi arautzea komeni da.

Hasteko, zehaztu behar da errege-dekretua indarrean jarri baino lehen abian zeuden eta dekretuan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena gainditzen zuten ustiategiak ahalmen horri eusten ahalko diotela, baina ezin izanen dutela handiagotu, inola ere. Ondorio horietarako, ustiategi horien indarreko ingurumen-baimenean jasotako gehieneko ahalmena hartuko da kontuan.

Bigarrenik, izapidetan dauden espedienteak ebaztean aplikatu beharreko araubide juridikoa zehaztu behar da, eta, horretarako, errege-dekretuaren lehen xedapen iragankorrean finkatutako data hartuko da erreferentzia gisa. Hori horrela, 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztutako behitegien baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, aldiz, data hori baino beranduago aurkeztutakoei, foru lege honetan xedatutakoa.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamen hau aurkeztu da, izapidetua izan dadin.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten dira Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen manu hauek, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

Bat. 28. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“28. artikulua. Distantziak eta gehieneko neurriak.

Eritasunak zabaltzea eta horien ondorioak ekiditeko prebentzio neurri gisa:

1. Abeltegiak erregelamenduz ezartzen diren distantziak gordeko dituzte bai haien artean bai haietatik abere kontzentrazioko instalazioetara eta abereen osasunerako arriskutsuak diren beste jarduera batzuetara edo antzekoetara. Distantzia horiek finkatzeko, kontuan hartuko dira inguruabar geografikoak eta abere-espezieen ezaugarriak, ustiategiaren neurria, ustiategi mota eta arrisku epidemiologikoa.

2. Gehieneko neurri batzuk ezartzen dira abeltzietarako, ustiategi berrien edo orain daudenen handitzeen neurriak ez daitezzen izan foru lege honen I. eranskinean ezartzen diren gehienekoak baino handiagoak”.

Bj. 39. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Agintari eskudunak animalia hiltzea nahitaezkozat deklaratu gero, kalte-ordaina emanen da, indarrean dauden arau eta baremoen arabera. I. eranskinean ezarritako plaza-, AzLU- edo abere-kopuruaren araberrako kalte-ordaina emanen da gehienez”.

Hiru. Bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituzten ustiategiak.

Abian dauden eta behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretua indarrean jarri baino lehenagotik dekretu horretan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena baino handiagoa duten ustiategiak ahalmen horri eusten ahalko diote, baina ezin izanen dute handiagotu, inola ere. Ondorio horietarako, ustiategi horien indarreko ingurumen-baimenean jasotako gehieneko ahalmena hartuko da kontuan. Ezin izanen dute gehieneko neurri hori handitzea dakarren aldaketarik egin instalazioan, ez eta ekoizpenaren orientazioan ere”.

Lau. Hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Izapidetan dauden espedienteen ebazpena.

1. 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztutako behitegien baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, behitegien oinarritzko anto-

lamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko zaie.

2. 2022ko apirilaren 6a baino beranduago aurkeztutako behitegien baimenei dagozkien espedienteei, administrazio-bidean ez bada horien gai-

neko ebazpen irmorik eman, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, beraz, ezin izanen dituzte gainditu I. eranskinean finkatutako gehieneko neurriak”.

Bost. I. eranskin berri bat gehitzen da, testu honekin:

“I. eranskina

Abeltegien gehieneko neurria (AzLU- edo plaza-kopuruaren arabera)

Txerri-ustiategien neurria	AzLU (1) / plazak 864 AzLU
Broiler oilaskoak eta hegaztiak oro har	300.000 plaza
Arrautzetarako eta hazteko oiloak	300.000 plaza
Ugalketarako oiloak eta haiek haztea	60.000 plaza
Kanpora irteten diren hegaztiak	50.000 plaza
Galeperrak	600.000 plaza
Esnetarako behiak	850 AzLU
Haragitarako behiak (2)	850 AzLU
Esnetarako ardi eta ahuntzak	6.000 ugaltzaile edo 600 AzLU
Haragitarako ardi eta ahuntzak	8.000 ugaltzaile edo 800 AzLU
Zaldiak	1250 AzLU
Untxiak	600 AzLU
Erleen kokalekua (3)	200 erlauntza
Espezie bat baino gehiago dituzten ustiategiak	1250 AzLU

(1) AzLU. Koadro honetako AzLUak kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 31/2019 Foru Dekretuaren 1. eranskineko AzLUen baliokidetzak

(2) Zezenketetarako azientaren ustiategiak barne

(3) Gehieneko neurriak erleen kokalekuenak dira, baina ustiategi batek berak kokaleku bat baino gehiago izan ditzake”.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00002. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten.

NAVARRA SUMA, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen baitira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2022ko abenduaren 2an eta 3an, Saharako herriari laguntzeko 46. EUCOCO Konferentzia egin da Berlinen, Alemanian.

220 parte-hartzaile izan dira konferentzian; besteak beste, toki-, eskualde- eta nazio-gobernuetako ordezkariak, parlamentariak, elkarteak, herri sahararrari laguntzeko batzordeak, eta abar.

Eta, gainera, sahararren ordezkari-tza ere egon da, lehen ministro Bouchraya Beyun jauna buru zutela. Horien artean, parte hartu dute Aljeriako, Hegoafrikako eta Timor-Leste ordezkari-tza zabalek, azken hori 46. EUCOCO onohorezko gonbidatua izan den Xanana Gusmaock zuzendua –Timorreko buruzagi politiko eta herrialdeko lehendakari-ohia da–.

Parlamentu honetako “Paz y Libertad en el Sahara - Bakea eta Askatasuna Saharan” taldeartekoko kideak ere izan dira 46. Konferentzian, horren aurreko edizioetan egin izan duten bezala.

Oraingo honetan, adierazpen bat onetsi da, zeinak, EUCOCOren beraren lanarekin lotutako alderdiak jasotzeaz gainera, parte-hartzaileen babesa adierazten dion herri sahararrari, honako hitz hauekin:

Amaierako adierazpena:

“EUCOCOK berretsi egiten du Mendebaldeko Sahararen independentziarako autodeterminazio-eskubidea babesten duela, ongi jakinik gaur egun oso testuinguru berezia bizi dela, horren ezaugarri nagusiak izanik Mendebaldeko Saharako isilean gordetako gerra, eskualdeko tirabirak, krisialdi energetikoa, Espainiako Gobernuko lehendakariaren jarrera-aldaketa eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegian izapidetan dauden prozedurak.

46. EUCOCOK dei egiten die Nazio Batuen Erakundeari eta horren Segurtasun Kontseiluari beren gain har dezaten ardura, MINURSOren bidez, Mendebaldeko Saharan erreferendum bat egite aldera, 1991ko eta 1997ko akordioetan aurreikusita dagoenari jarraikiz. Orobat, Misiolari dei egiten dio Giza Eskubideen errespetua bermatu dezan Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan.

Konferentziak oles egiten die saharar errefuxiatuen kanpamentuetan, diasporan eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta herri sahararrak gauzaten duen erresistentziari, eta, oso bereziki, preso politiko sahararrei.

Konferentziak oles egiten dio Afrikar Batasunak nazioarteko zuzenbidearen printzipioekiko erakusten duen jarrera aldaezinari, bereziki herri sahararren independentziarako eskubideari dagokionez, zeina agerian geratu baita Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gortearen 2022ko irailaren 22ko epaian.

46. EUCOCOk Europar Batasunari dei egiten dio, orokorrean, bai eta herrialde kideei ere, anbigutasunik gabe babestu dezaten Mendebaldeko Sahara deskolonizatzea ekarriko duen irtenbide demokratiko bat, Afrikako azken kolonia baita. Onartezina da Giza Eskubideen errespetua modu batean edo bestean sustatzea eta exijitzea, horien urraketa gertatzen den munduko eskualdearen arabera. Desberdinkerian oinarritutako politika bat da.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ematen dituen hurrengo epaiak une egokia izanen dira Europar Batasuneko herrialdeek, zehazki, eta nazioarteko komunitateak, oro har, rol erabakigarria har dezaten Mendebaldeko Saharako gatazkaren inguruan. Neutraltasuna ez da aukera posible bat, okupazioaren aurrean”.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak babesa erakusten dio 46. EUCOCO Konferentziaren amaierako adierazpenari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu 46. EUCOCOn amaierako adierazpenaren aldeko babesa adieraz dezaten.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentariak: Javier García Jiménez, Isabel Aramburu Bergua, Patricia Perales Hurtado, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

10-23/MOC-00003. Mozioa. Horren bidez, botere-banaketa oinarrizko printzipio demokratiko gisa berresten da, eta arbuiatu egiten dira Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez botere-banaketa oinarrizko printzipio demokratiko gisa berresten baita, eta arbuiatu egiten baitira Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari axikita dagoen Iñaki Iriarte Lopez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak botere-banaketa oinarrizko printzipio demokratiko gisa berresten baitu, eta arbuiatu egiten baititu Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak.

Botere-banaketa ez da anakronismo juridiko bat, ez eta demokraziaren iraganeko modu inperfektuetatik oinordetzan jasotako ezaugarri bat ere; aitzitik, erregimen demokratikoen ezaugarri giltzarri eta atemporalak da. Banaketarik gabe, botereek ez dute boteretzat jotzerik merezi, eta auto-

krazia izatetik hurbilago gelditzen dira. Hain zuzen ere, batek, guxi batzuek edo hainbatek, herrikideen gehiengoaren babesa jaso izan ala ez, botere guztiak –legegilea, exekutiboa eta judiziala– metatu ahal izateak murriztu egiten du Gobernuaren ekintzaren gainean kontrol eraginkorra egiteko modua, eta eragotzi egiten du nagusikeriari aurre egiten dieten kontrapisuen funtzionamendua.

Azken aldian, ordea, botere-banaketaren printzipioa erasotua izaten ari da eragile politiko eta mediatiko batzuen aldetik, bai eta zenbait erakunde zuzentzen dituzten pertsonen aldetik ere. Ildo horretatik, argudiatzen dute justizia-auzitegien independentzia logika demokratikotik kanpo gelditzen dela, herriaren ordezkariak erabakiak hartzea eta eztabaidatzea eragozten diela eta, beraz, herri-subiranotasunaren printzipioarekin talka egiten duela.

Pedro Sánchez Castejónnek zuzendutako Espainiako Gobernu bera ere nabarmena izan

da botere-banaketaren printzipioaren eta justiziaren errespetuaren aurkako erasoetan, indultua eman baitie preso jakin batzuei bere interes politikoaren mesedetan, eta lege-erreformak ere abiarazi baititu xede beraz, horrelako erreformak egiteko ezarritako prozeduren gainetik igaroz eta auzitegien ebazpenak erdeinatuz.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du botere-banaketaren printzipioarekiko duen konpromisoa, oinarrizko elementu demokratikoa den heinean, eta arbuia egiten ditu Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

10-23/MOC-00004. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Berdintasun Ministerioari exiji diezaion berehala berrikus dezala irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Berdintasun Ministerioari exiji diezaion berehala berrikus dezala irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari axikita dagoen

foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 10/2022 Lege Organikoari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Auzitegiak 9 urte eta 6 hilabeteko espexe-zigorra ezarri dio adingabe baten borxatzaileari, ofizioz aplikatuta Sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa, "Bai soilik da bai" legea bezala ezaguna den hori.

Lege organiko hori aplikatuta Nafarroan eman den lehen epaiak ekarri du borxatzailearen zigorra murriztea, gertakariaren unean indarrean zegoen legeriaren aplikazioak ekarriko zukeen zigorraren aldean.

2022ko azaroaren 16ko komunikatu batean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek oroitarazi zuen ezen Kontseilu horrek kasuko xostena jaulki zuela 2021eko otsailaren 25ean, Sexu askatasunaren berme integralari buruzko Lege Organikoaren aurreproiek-

tuari buruzkoa eta aho batez onetsia, eta berariaz dio: "Txostenean, zeina aurrelegegileari bidali baitzitzaien, ikusten zen ezen aurreproiektuak Zigor Kodeko VIII. tituluko I. eta II. kapituluetan tipifikatzen dituen sexu-erasoko delituetarako jasotzen zuen taula penologikoak zigor batzuen gehieneko mugaren beherapena zekarrela".

Lege horren arduradun den Berdintasun Ministerioa, berak egindako okerra aitortzeaz oso bestela, epaileriaren aurka erauntsian abiatu da, Berdintasuneko ministroak erasoak eta akusazioak jaurtikiz eta Berdintasunerako Estatuko Idazkaritzak adierazpen errespetugabeak eta onartezinak eginez, ezinbestean plazara irtenarazten gaituztenak, arau horren aplikazioaren eraginpean dauden nafar herritarren ordezkari garen heinean.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiazten du Berdintasun Ministerioari exijitua diezaion berehala berrikustea irailaren 6ko

10/2022 Lege Organikoa, bertan behera uztearren lege horrek sexu-delituak egiten dituztenen zigorraren gehieneko mugan eginiko beherapena, hala ere, moldez non 2022ko irailekoa den egungo araubidearen aurretik indarrean zeuden zigor berak aplikatuko baitira berriro.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du arbuia dezan Berdintasuneko ministro Montero andreak epaileriaren aurka abiarazitako eraso inoiz ez bezalako, eta arbuio hori aipatu ministerioari helaraz diezaion.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du arbuia ditzan Estatuko idazkari Rodríguez andreak berriki jaulki dituen adierazpen onartezinak, "Bai soilik da bai" lege organikoa aplikatzearen ondorioei buruzkoak, eta arbuio hori Estatuko Idazkaritza horri helaraz diezaion.

Nafarroan, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

10-23/MOC-00005. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiazten da energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiazten baita energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari axikitako foru parlamentari Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2023ko urtarrilaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiazten da energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan.

Une honetan inork ez du zalantzan jartzen klima-aldaketaren prozesua lehengoratzeko premiazko beharra; izan ere, prozesu horren ondorioak oso kaltegarriak eta arriskutsuak dira gizarte gisa bizirauteko.

Eztabaidaezina da klima-aldaketaren aurkako borrokarako tresna nagusia eredu energetikoaren errotiko aldaketa dela, energia berriztagarrien garapenera eta erabileraren bidez eta erregai fosil kutsatzaileen desagerpenaren bidez.

Eredu aldaketa hori, trantsizio energetikoa izenekoa, planeta osoan sustatu beharrekoa da lehenbailehen eta, horretaz gain, dakartzan eraldaketa ekonomiko eta sozialen arloko erronka handiei ekin behar zaie, trantsizioa justua eta orekatua izan dadin.

Sozialistentzat lehentasuna da energia berriztagarrien parke indartsuen diseinua eta ezarpena, bai eta autokontsumorako gertuko instalazio xikiena ere.

Halaber, ezinbestekoa da garraio elektrikorako azpiegitura nahikoak izatea, gure sarearen konexioa ziurtatuko dutenak eta ahalbidetuko dutenak bai soberakinak penintsulako beste lurralde batzuetara edo Europara esportatzea, bai elektrizitatea inportatzea eguzki-irradiazio edo potentzia eoliko baxuko uneetan, hau da, ekoizpena defizitarioa denean.

Hori guztia diseinatu behar da ingurumenarekiko ezinbesteko errespetuarekin, ekonomia ez-kutsatzaile eta jasangarri baterantz gerturatuko gaituen eraldaketa sozioekonomikorako eredu baten bidez.

Horrekin lotuta, Espainiako Gobernuak abenduaren 27an onetsitako 20/2022 Errege Lege-

dekretuaren 22. artikuluan aldi baterako prozedura bat ezartzen da, salbuespenezkoa, energia-iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzeko instalazioen proiektuak izapidetzeko, proiektu horien garapena erraztu eta arintzeko xedez.

PSNk uste du Nafarroak, lurralde anitza, eguzkitsua eta haizetsua izanda, baduela aukera energia berriztagarrien bitartez gure beharrizan guztiak asetzeko adina energia sortzeko kanpoko iturrien edo erregai fosil kutsatzaileetatik eratorritako energien mende egon gabe.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du inplikaturiko departamentuek posible eta beharrezko diren zuzemen guztiak egin ditzaten gure energia sorkuntzarako sistemaren ezinbesteko eta premiazko eraldaketa ahalbidetzeko beharrezkoak diren azpiegituren ezarpena arintzeko Nafarroan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabeyen

10-22/MOC-00107. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da izapide egokiak egin ditzan vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklara dezaten.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da izapide egokiak egin ditzan vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklara dezaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du izapide egokiak egin ditzan – dagokionean eta aurretik kasuan kasuko administrazio-espeditentea tramitatuta– vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklara dezaten”.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

